

## ZURE ESKUEN ARTEAN

Elaia Torres

*Durango, 13 urte*

Atzo

nire baul txikia

zabaldu nuen

eta gauzen artean

zuk

emandako argazkia han zegoen.

Biok

maitemindu begiak genituen

kapa distiratsu batez inguratuz.

Argazkia aldean utzita

buruari bueltaka jarraitu nuen.

Eta pentsatzen hasi nintzen

zure esku artean egon nintzenaz,

laino urdin batek

inguratzen gintuen bitartean

esaten zenidanean

maite ninduzula

eta ez ninduzula inoiz utziko.

Txoriak inguratu zitzaizkigun

eta beraien kantua oparitu ziguten,

bertan esaten zuten

maite bazintudan

ez uzteko joaten.

Momentu hartan

ez nuen uste benetan esaten zutenik

eta ez nion inportantziarik eman,

baina

poz guztiaren artean  
negarrez hasi nintzen  
zeren eta  
nire albotik joan zinen  
ni bakarrik utzita.  
Txoriek arrazoia zuten,  
ez zuen betirako iraungo  
zeren eta bizitzak  
beste mundu batera  
eraman zintuen.  
Eta orain  
zutaz geratzen zaidan bakarra  
pentsamendua da.